



Argia izateko konpromisoa

Egun gutxi barru, Abendualdiak Jainko-Hauraren eskutik datorren argiari bide emango dio. Hark, munduaren salbazioarekin konprometitua izanik, gure artean bizi nahi izan zuen guri bidea erakusteko. Orain, salletar familiako kide garenez, lekuko izatera eta gure misioa gauzatzera deituta gaude, gure fundatzaileak, La Salleko san Joan Bautistak, oparitu zigun karismatik.

Eguberria hasiera berri bat da, abagune berri bat birjaiotzeko, begirada enfokatzeko, sinesteko, barkatzeko, fedea berritzeko eta ospatzeko, ahaztu gabe mundu honetako txoko askotan bakea falta dela, non pertsona askok sufritzen ari diren. Gosea, gerrak, lekualdaketak, oinarritzko gabeziak, leku urrunetan eta ez hain urrunetan, ezin ditugu eta ez dira ezkutatu behar, zorionekoagoak garenok bizi dugun pozaren azpian. Solidaritateak, eskuzabaltasunak, justiziak eta bakeak argi egingo diguten faroak izan behar dute eta besteak argitzen lagunduko dutenak.

La Sallen zaugarrienekin dugun konpromisoa geure akuilu bihurtu nahi dugu, beti harantzago begiratzuz, batasunetik lan eginez, keinu xumeenetatik abiatuta, gizarte bidezkoagoa, sentikorragoa, inplikatuagoa eta guztiei abaguneak eskainiko dizkiena lortzeko.

Egunero lekuko gara Jainkoaren deiak interpelatuta sentitzen diren eta mundu hau leku hobea izan dadin lan egiten duten gure hezitzaileen, ikasleen, gazteen, familien, Anaien, asoziatuen, boluntarioen eta beste lankideen konpromisoaren lekuko hain zuzen. Harro eta zorioneko sentitzen gara salletar hezkuntza-obra eta elkarte bakoitzean La Salleren ametsa bizitzeko inplikatzan den familia honen parte izateaz.

Agur esan diezaiogun 2025ari, funtsean gehien behar dutenei begirada zuzenduko dien konpromiso berritu batekin. Bizi dezagun pozez, ilusioz eta eskuzabaltasunez etortzeko dagoena, unean-unean gozatuz eta esker onez.

EGUBERRI ON!

Barrutiko Animazio Taldea

